

Alejandro Onrubia

Nycticorax taldeko arduraduna



1995ean jarritako eraztunari esker, Ulibarri inguruan bizi den buztanluze honen jarraipena egin ahal izan da.

Hegaztiei eraztuna jartzeko baimen berezia behar da, ezeren gainetik euren ongizatea bermatu behar baita.



Eraztunen bidez aurkitutako bitxikeriak

Hainbeste hegazti markatu direnez, mota guztietako bitxitasunak aurkitu dira. Hona hemen pare bat:

✘ Habia egiteko Holandan prestatutako kutxa batean, kaskabeltz handi bat markatu zuten. Hurrengo urteko udan, markatutako txoria bera jaiotako kutxa berean umetzen ari zen, eta bere bikotea, bere ama zen!

✘ Sorbeltzak hegalaria bikainak dira gaztetatik. Oxfordshir-en uztailearen 22an markatutako txitoa, adibidez, bederatzi egun geroago irten zen habitatik, eta hiru egunen buruan, Madrilen agertu zen, 1.200 kilometro egin ondoren.

Eraztunak jartzeko teknika

Eraztuna jartzeko, hegaztia harrapatu egin behar da. Horretarako sare japoniarrak erabiltzen dira, eta haiek landare artean ezkutatuta, hegaztiak, batetik bestera mugitzerakoan, trabatuta gelditzen dira. Ornitologoen, orduan, kontu handiz bildu, neurtu eta eraztuna jartzei ekiten diote. Normalean, sexua, adina, pisua eta gorputzaren neurri estandarrek hartzen dizkiete, aluminiozko eraztuna jarri hankan, eta erori den inguruan askatu. Hortik aurrera, eraztuna noizbait azalduko dela itxarotea besterik ez dago...



Alejandro Onrubia, Doñanan, martin arrantzale bat markatzen.

«Azken finean, hegaztien kontserbazioan laguntzea dugu helburu»

ALEJANDRO Nycticorax taldeko arduraduna da, eta bost urte daramatza Gasteizko urtegieta hegaztiak eraztunez markatzen eta haien jarraipena egiten. Esku artean duen ogi erdiko txorizo ogitartekoa jan bitartean, gure galderei erantzuteari ekin dio.

• Zein da zuen funtzionatzeko era, Alejandro?

Taldean 6-8 gara gehienbat aritzen garenak, baina urtean zehar beste lagun asko ere pasatzen dira. Normalean, 7-10 egunetik behin irteten gara hegaztiak markatzera, eta gure ikerketa

burutzeko urte osoan egin behar dugu. Eguna argitzezko sareak jartzen ditugu, eta hegaztiak erori ahala, jaso eta eraztuna jartzen diegu. Era berean, noski, markatzen diren guztien datuak txukun jaso eta zentralera bidaltzen ditugu.

• Zuen lana al da hau, ala gustuz egiten duzue?

Eraztun-jartzaile profesional gutxi dago.

Gehienak oso ongi prestatuak dira eta haien motibazioa, azken finean, hegaztien kontserbazioan laguntzea izaten da.

• Zertarako egiten duzue hau?

Urtegi honen inguruan urte osoan ibiltzen diren hegazti espezieen jarraipena egiteko estazio bat da hau. Garai bakoitzean zein espezie aurkitzen diren, eta haien kopuruak, jatorria eta helmugak zein diren argitu nahian gabiltza.

• Edozein izan al daiteke eraztun-jartzaile?

Ingurugiro Ministerioak ematen duen baimena eduki behar da horretarako. Hegaztiak esku artean

erabiltzen direnez eta haien ongizatea bermatu behar denez, ezinbestekoa da teknika menperatzea, eta baimena lortzeko, azterketa teoriko eta praktikoa zorrotzak pasa behar dira. Hegaztiak ezagutu behar dira, adinak, sexuak, eta, noski, espezieak. Horrez gain, eraztun-jartzaile talde batek zure gaitasuna egiaztatzen duen agiria ematen du. Azkenik, Foru Aldundiaren baimena behar da sareak eta tranpak erabili ahal izateko.

• Zer egin behar genuke eraztuna duen hegazti batekin topo eginez gero?

Zentral nazionalera igorriko duen norbait jakinarene gainean jarri. Basozain, ornitologo edo eraztunak jartzen dituen talde bati eman dakioke datua: Aranzadiri, Espainiako Ornitologia Taldeari (SEO) edo Naturako Arabar Institutuko kideei, esate baterako. Eraztuna ematea, gainera, ez da beharrezkoa. Aski da bertan jartzen dituen letra eta zenbaki guztiak apuntatu eta bidaltzea. Denborarekin, hegazti hori non eta noiz markatu zen esango diote datuaren igorleari.